

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, hainbat funtzio eta betebeharrak egin beharko ditugu. Atal honetan, jarduera horiek zehaztu eta azalduko ditugu.

Kanpoko enpresa bat kontratatu beharrean, gure abileziak aprobetxatuko ditugu bakoitzak bere funtzioak ondo eta erraztasunez bete ditzan. Horrela, errentagarriagoa izango da eta etorkizunean etekinak lortzea errazagoa egingo zaigu.

Gure proiektuaren publizitatea eramango duena Nagore izango da, bezeroak lortzeko eta plataforma Espainian zehar zabal dadin. Horretaz gain, ekonomiari buruzko ezagutzak dituenek, diruaren administrazioa eta aurrekontuen kudeaketa egingo ditu. Berak bere burua gai ikusten duelako lan hortaz arduratzeko; beraz, maileguari dagokionean, bera arduratuko da dirua pixkanaka bueltatzeaz.



Bestalde, Eiderren zaletasuna informatika denez, bere jakintza erabiliko du plataformari bizia emateko, hau da, aplikazioaren mantenimenduaz eta eguneratuta egoteaz arduratuko da.



Eta azkenik, Anne harremanez arduratuko da, jendearekin komunikatzeko erraztasun handia baitu. Arrazoi berarengatik beste enprekin aliantzak sortzerako garaian bera izango da arduraduna. Gainera, jendearen aurrean aurkezteko ahalmena eta konbentzitzeko erraztasuna duenez ederki datorkio, segurki zeregin hori bikain beteko duelako.

ETS